



GEOGRAFIA ETA HISTORIA. PROBA PRAKTIKOA

ARTEAREN HISTORIA (3 puntu)




1. **DONATELLO: DAVID.** Museo Nazionale del Bargello, Florentzia. Brontzea (1'58 m)
2. **MICHELANGELO: DAVID.** Akademiaren Galeria, Florentzia. Marmola (4'34 m)
3. **Gian Lorenzo BERNINI: DAVID.** Galleria Borghese, Erroma. Marmola (1'70 m)

Erantzun artelanei buruzko hurrengo galderak:

1. Testuingurua: azaldu laburki hiru artelan hauen koordinatu historiko-artistikoak.
2. Ikonografia: azaldu gaia eta bere esanahia testuinguru bakoitzean.
3. Anlisi formala: konparatu hiru artelanen alderdi estilistikoak (teknika, konposizioa, giza-figurazioa, mugimendua), bakoitzaren estiloa identifikatuz.
4. Balorazioa: azaldu lanaren garrantzia edo esanahia bere estiloari edo Artearen Historiari dagokionez.

GEOGRAFIA (3 puntu)



Prezipitazio guztira: 1.211 mm

Urteko batez besteko tenperatura: 26'9 °C

	Urt	Ots	Mr	Ap	Mai	Ek	Uzt	Abz	Ir	Urr	Az	Abn
T °C	23.9	26	27.9	29	29.5	28.6	27	26.5	26.7	27.4	26.6	24.1
P mm	0	0	0	0	13	115	281	383	294	118	6	1

Erantzun grafikoari buruzko hurrengo galderak:

1. Deskribatu datu klimatikoak eta ondorioztatu klima-mota eta bere kokapena.
2. Azaldu klima honetako tenperatura eta bitarte termikoa eragiten dituzten faktoreak.
3. Azaldu klima honetako prezipitazioak eragiten dituzten faktoreak.
4. Azaldu klima honetako landaredia eta lurzorua.
5. Zein eragina dute klima honetako baldintzek (tenperaturak, prezipitazioak, landaredia, lurzorua) gizakiaren bizitzan?

HISTORIA (3 puntu)

“Iraultza politikoa eginda, hau da, dinastia kanporatua eta askatasun publikoak berrezarrita, garrantzi handiko arazo espezifikoa konpondu da, zalantzarik gabe!; baina horrela, hala ere, Espainiako Estatua eta gizartea sustrairaino aldatuko duten arazo batzuk planteatu dira. Arazo horien artean, nire uste apalean, garrantzitsuenak hiru dira: tokiko autonomien arazoa; gizarte arazoa, horren formarik premiazkoenean eta larrienean, hau da, jabetzaren erreforman; eta erlijio-arazoa deritzoten hori, izatez Estatuan laikotasuna ezartzean oinarritzen dena, horren nahitaezko ondorio guztiekin. Arazo horietako ezta bat ere ez du Errepublikak asmatu. Errepublikak antzineko Espainia ofizial monarkikoaren oihalak urratu ditu, ez zegoen bizitzaren itxura egiten zuena eta benetako bizitza ezkututzen zuena.”

Manuel Azañak Gorte Konstituziogileetan egindako hitzaldia. 1931ko urriaren 13a

“Manuel Azaña. Antologia . Hitzaldiak”. Alianza Editorial, Madril, 1983

Erantzun testuari buruzko hurrengo galderak:

1. Kokatu testua bere testuinguru historikoan: nola gertatu da Azañak aipatzen duen “iraultza politikoa”?
2. Identifikatu, Azañaren arabera, Espainiak dituen hiru arazo: zertan datza arazo bakoitza? zein da haien jatorri historikoa? zergatik dio Azañak “arazo horietako ezta bat ere ez du Errepublikak asmatu”?
3. Azaldu zein konponbide eman zitzaaien hiru arazoei Errepublikako fase desberdinetan.
4. Ba al du zer ikusirik arazo hauen planteamenduak Gerra Zibilaren sorrerarekin?
5. Nola bideratu zituen arazo hauek ondoko Frankismoak?

OHARRA: Adierazpena, argitasuna, hiztegi teknikoa, koherentzia eta ortografia (PUNTU BAT)